

Lizitazio Publikoa

2016ko iraila: Guztira=%-32,6; Eraikuntza=%-13,5; Obra zibila= %-38,6

Irailera arte, lizitazio ofizialak %-32,6 egin du behera aurreko urtearekiko. Tokiko Administrazioen lizitazioak bakarrik egin du gora, gainerakoena, ordea, jaitsi egin da.

Seopanen datuen arabera, lizitazio publikoak **%-32,6ko** jaitsiera metatu du **irailera arte aurreko urtearekin alderatuz**, %+21,6 orduan. **228 milioi** baino zertxobait gehiago izan dira; 2000 urtetik geroztik, aldi honetarako bolumenik baxuenetako bat, 2002, 2011 eta 2013 urteetan erregistratutakoen azpitik bakarrik.

Eraikuntzak %-13,5 egin du behera aurreko urtearekiko, baina orduan hazkundea %+74,1eko izan zen. Guztira, **70 milioi** baino gutxiago dira, aldi honetarako **batez besteko historikoaren %66a** bakarrik, baina 2012 eta 2014an lizitatu zena baino gehiago.


Obra zibilak, bestalde, %-38,6 egin du behera aurreko urtearekiko, %+11,1 orduan. **158,5 milioi** baino gutxiago dira, aldi honetarako batez bestekoaren erdia eta 2000. urtetik erregistratutako bolumenik baxuenetako bat.

Administrazio zentralaren lizitazioak beharokada latza erakusten du. **%-90,8** egin du behera aurreko urtearekiko **19 milioi**ren azpitik kokatu arte, aldi honetarako **batez bestekoaren %44a**. Hala ere, gogoan izan behar dugu pasa den urteko lehen bederatzi hilabetetan lizitatutakoaren gehiengo abiadura handiko trenari lotutako bi obrei zor zitzaieela. **Eusko Jaurlaritzaren lizitazioa %-24,7** jaitsi da aurreko urtearekiko, %+86,3 orduan. **30 milioi** baino gutxiago dira, batez besteko historikoaren %26 inguru. **Tokiko Administrazioen** lizitazioak bakarrik egin du gora, **+%87,5** aurreko urtearekiko (%-21,0 orduan). Guztira ia **180 milioi** dira, batez besteko historikoaren %68a.

Gainerako Euskal lurraldeei dagokienez, lizitazioa **%-11,5** murriztu da **Bizkaian, Araban, ordea, %+19,3** egin du gora. Hortaz, **Euskadin orohar %-15,4ko** jaitsiera gertatu da. **Espainian, bestalde, jaitsiera %-6,7koa** da.


Lizitazio publikoaren bilakaera

Azken 12 hilabeteotako lizitazio-bolumena. 2001eko urtarila = 100



Lizitazioa Euskadin

Lurraldeen arabeko ehunekoen banaketa



Lizitazio ofiziala buletinetan argitaratutako datuen arabera

Urtetik urterako aldaketa-tasa (%)

	Gipuzkoa					
	Erakundeka		Tokikoa	Motaren arabera		Guztira
	Administrazio zentrala	Erkidegokoa		Eraikuntza	Obra zibila	
2015ko pisua	64,8	11,7	23,5	24,7	75,3	100
2007	38,2	232,8	2,8	-3,0	25,9	18,8
2008	14,3	57,7	-48,3	49,0	-46,4	-27,2
2009	234,7	67,4	8,5	-6,4	71,4	39,3
2010	-0,3	98,1	10,6	-7,4	75,4	52,5
2011	79,6	-55,0	-66,0	-4,9	-61,6	-52,0
2012	-97,4	-47,5	6,5	-64,3	-34,2	-44,3
2013	-0,4	-82,7	-12,9	-3,2	-65,1	-51,9
2014	9.326,8	32,5	2,5	-23,2	321,1	173,0
2015	-2,3	9,9	-26,5	87,6	-21,3	-8,2
2016*	-90,8	-24,7	87,5	-13,5	-38,6	-32,6

* Abuztuan Gipuzkoako Ingurumen Gune Berriaren lehen fasea lizitatu da (Errautegia), baina zerbitzu kontratu bat denez, Seopanek ez du bere datutan kontutan hartzen.